

Languages Lanean

Kongresua

2024. 01. 18-19

Languages Lanean hizkuntza kudeaketari buruzko I. nazioarteko kongresua egingo da Bilbon urtarrilaren 18an eta 19an

Languages Lanean. Hizkuntza kudeaketaren erronkak jarduera ekonomikoan kongresuak lan munduan hizkuntza-kudeaketak duen garrantzia azpimarratzea eta eremu sozioekonomikoan hizkuntza-kudeaketa aurreratua duten **erakundeen** praktika onak zabaltzea du jomuga. Etorkizunari begiratzen dio kongresuak, sektore sozioekonomiko globalizatu bati, non hizkuntza-kudeaketa beharrezkoa den kalitatezko zerbitzua eskaintzeko eta merkatuan lehiatzeko.

Globalizazioa, aniztasuna edo nazioartekotzea dira gaur egungo gizartearen ezaugarriak, besteak beste, eta horiek hizkuntza-kudeaketaren konplexutasuna areagotzen dute jarduera ekonomikoan. Aukera berriak ere sortzen dira, hizkuntza-teknologiaren edo adimen artifizialaren eskutik. **Languages Lanean** kongresuaren helburua da eremu sozioekonomikoan hizkuntzen kudeaketa egokia egiteko esperientziak ezagutzea, irakaspenak partekatzea eta horien gainean eztabaidatzea. Horretarako, Euskal Herriko zein nazioarteko hizlariak gonbidatu dira. Hitzaldiez gain, sektoreen arabera antolatutako **mahai-inguruak izango dira**. Egitarau zabala prestatu da, 50 hizlari baino gehiagoren parte-hartzearekin.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak antolatu dute kongresua. Bi eguneko topaketa izango da, eta Bilbon izango du egoitza; urtarrilaren 18an Euskalduna Bilbao Jauregian eta 19an Guggenheim **Bilbao** Museoa.

Kongresua doakoa da, baina bertaratzeko beharrezkoa da izena ematea webgunearen bidez: <https://languageslanean.euskadi.eus>